



ARIMEN



*Aiaraldean
ospatzeko
proposamenak*

AIARALDEA EKINTZEN

**FAK
TO-
RIA**

SARRERA

Urriak 31 betidanik izan da gau berezia. Europa osoan badaude gau hori modu berezian bizitzen dituzten istorio eta usadioak, eta Euskal Herrian ere hala ospatu izan da. orain dela gutxira arte, “Arimen Gaua” edo “Gau beltza”.

Baina gure artean, gero eta gehiago zabaltzen ari da Halloween jaia, eta indar handia hartzen ari da. Ospakizun hau Estatu Batuetakoa dela uste dugun arren, Eskoziara joan behar dugu hitzaren jatorriaren bila. Ingeleseezko “All Hallows Even” hitzetatik dator.

Azken esaldi honek santu guztien gauari egiten dio erreferentzia. Tradizioaren jatorria begiratze-ko aldiz, Irlandara jo beharko genuke, gau horretan zeltek udari agur esaten zioten eta neguari ongi etorria eman.

Eredu angloxajoniarreko “Halloweenen” ohitura guregana heldu da eta gaur egun oso erraza da haur, gazte zein familiak mozorratuta ikustea goxokiak eskatzen. Komunikabideek eta industria kontsumistek guregana ekarri dute jaia eta gure inguruan,

haurrek batez ere, eredu horren arabera bizi dute jaia. Erreferentzia arrotz baten gisa ikusten dute irakasle eta guraso askok jaia, eta askotan ukatu egin dugun erreferentzia bat da.

Euskal Herrian eta Aiaraldean ere ospatu izan da Arimen Gaua

Ehunka lekukotzek adierazten duten bezala, Euskal Herrian eta Aiaraldean ere, aspaldi ospatu izan den gaua da domu santu eguneko bezperarena. Euskal Herrian bakarrik ez, bestelako herri batzuetan ere ospatzen den garaia da hau; Galizian adibidez, eta gaztainaren kulturari oso lotuta, “magosto” ospatzen da.

Polita da debekatu beharrean ospatzeko bide ematea, eta horretara dator dosier hau ere.

Zaila da esatea Euskal Herrian eta Aiaraldean arimen gaua (edo gau beltza toki askotan) noiz hasi zen ospatzen, baina gure aiton-amonen lekukotzak aintzat hartuta, duela hamarkada gutxi arte gure inguruan oso errotutako ohitura zen arimen gaua ospatzea.

Ospakizuna hiru aldagai nagusiren bueltan egituratzen zen. Alde bate-tik, kalabaza eta arbien erabilpena, hustu eta kandlekin apainduta, kale eta baserri-bideetan jartzea.

Bestetik etxeko trapu zaharrekin mozorratzea, nork bere burua estali eta, anonimotasuna eskuratuta, herritarren artean beldurra hedatzea. Eta azkenik, kantu-eskean ibiltzea etxez-etxe, jakiak eta goxokiak eskatuz.

Ondorengo orriotan Arimen Gaua gure usadioei jarraituta ospatzeko hainbat informazio eta proposamen aurkituko dituzue, bai eta eskoletan lantzeko hainbat ideia ere.



HELBURUAK

Dosier honen bidez, Aiaraldea Ekintzen Faktoriak Arimen Gauaren inguruko informazioa eskualdean zabaltzeko helburu xumea du, ezezagunak edo ez horren ezagunak zaizkigun usadioak eta tokiko tradizioak mahai gainean jarri eta gure haurrek Halloween jai eredu arrotza eta kontsumista ospatzeko duten modua aldatzeko gomendio eta proposamen batzuk egitea.

Orrialde hauek hortaz, bide horretan aurrera egiteko lehen ahalegina baino ez dira, oraindik osatu eta garatzeko dagoen lana da beraz.

Bide horretan, gure inguruko tradizio eta historian kokatu behar gara, eta behin kokatuta, hurrengo urteetan eragiteko ahalegina egitea, eredu arrotz eta kontsumistetik urrundu eta gure-gureak diren ohiturak berreskuratzeko.

Zentzu horretan, atzerriko ohiturak ezarri aurretik Euskal Herriko eta Aiaraldeko ohiturak ezagutzea ezinbestekoa iruditzen zaigu.

Askatasun ariketa bat bezala ulertzen dugu, haurrek, gazteek eta familiek aukera dezatela

modu librean zein ohiturari kasu egin nahi dioten. Horretarako, bertako ohituren ezagutza behar beharrezkoa da.

Bestetik, jakin badakigu eredu arrotzak bat ere filtrorik gabe gurean ezartzean, gure identitatearen ezaugarri esanguratsuen den hizkuntza, euskara, albo batera uzten dela.

Zentzu horretan, proposamen honen helburua bikoitza da; gure inguru hurbileko usadioak berreskuratzea, eta haur, gazte eta familiek ospatzen dituzten jaien lotura-haria euskara izatea.



MARKO TEORIKOA

Lehenago aipatu bezala, domu santu egunaren bezperako ospakizunak inposizio moduan hartu egiten ditugu askotan, Estatu Batuetako jai arrotz moduan ikusten ditugu, eta horrek atzera egiten digu. Baina Euskal Herrian ere aspalditik ospatu izan da Arimen gaua.

“Halloween” jaiarekiko mesfidantzak eta kontrakotasunak pizten zaizkigu eredu merkantilista eta kontsumista argi bat duelako gure artera iristen den jaia-ere-
duak. Horren da handia negozioa egiteko nahia, horren handia mo-
zorro eta maskarak, kalabazak edo eta beldurra eragiteko jolas eta tresnak erosteko sukarra, ezen eta, logikoa den bezala,

atzera egiten digun. Gaur egun ia inork ez ditu, gurean ohitura zen bezala, etxeko trapu zaharrak erabiltzen mozorrotzeko, eta jaia erabat plastifikatu da.

Baina egon badago gau berezi hau antzinako tradizioetan oinarrituta ospatu nahi duenik ere, eta horretarako, jai hau Euskal Herrian zelan ospatu den jakin beharra dago.

Euskal Herrian, Aiaraldean eta, oro har, Europako kultura tradizioan bi aro bereizten dira; negua eta uda. Jaiak ere bi aro hauen artean banatu egiten dira. Normalean, jaiak banakotasunean gozatzen ditugun arren, neguko jaiak badute ezaugarri komun

bat. Ezaugarri hau etxez-etxe eskean aritzearena da.

Neguko jaiak normalean Arimen gauaren inguruan hasi eta inauteriak arte luzatzen dira, garai horretakoak dira, nahiz eta mo-
zorroa aldatu, Arimen Gaua, San Martinak, San Tomasak, Olentzereoren eskeak, Santa Ageda eta Inauteriak eurek. Denek ala denek dute eskea oinarri.

Euskal Herrian, Arimen gaua edo gau beltza XX. mende bukaerara arte ospatu den jaia da. Helduon aiton-amonei galdetuta ondo gogoratuko dute kalabazak edo arbiak hartu, hustu, zulatu eta kandlekin bide bazterretan jartzearen ohitura.



HIRU ARDATZ

Kalabazak, kantu-eskea eta mozorrotuta beldurra hedatzea dira Arimen Gaia ezaugarritzen duten hiru aldagai nagusiak.

Arimen Gaia ospatzeko hiru elementu hauek elkarrekin kokatu eta gozatzea da helburua:

1.-Kalabazak

Kalabaza edo arbiak baratzeetatik hartu (lehenago “lapurtu” egiten ziren), zulatu, aurpegi itxura eman eta kandelak jarriko dizkiegu. Soinean eraman ditzakegu edo bide bazter ilunetan utzi, beldurra ahal beste eragiteko. Buruhezur itxura hartuko dute kalabazek, eta modu horretan hildakoen tankera hartuko dute.

2.-Beldurra

Beldurra eragiten jarraitzeko, etxeko trapu zaharrak erabilia gure burua estaliko dugu. Baztertu egingo ditugu erositako mozorro eta maskara ponposoak. Helburua beldurra eragitea den heinean oso garrantzitsua da aurpegia estaltzea. Euskal Herrian ospakizun askotan egiten da horrela, burua estali etxeko trapu zaharrekin edo saku batekin.

3.-Kantu-eskea

Etxez-etxe eskean arituko gara azkenik; intxaurrak, urrak, gaztainak, jana, edana, goxokiak... Eskean ibiltzeko formula ezberdinak daude, gustukoen duguna erabiliko dugu horretarako. “Sosa ala pota”, “Txingila mingila kurruskario, sagarrak merke eta udareak kario”, “Ziria ala saria”, “Xanduli, manduli, kikirriki... eman goxokiak guri!”...

LEKUKOTZAK AIARALDEAN

JOSE LUIS FERNANDEZ ZURBITU (Artziniegako Etnografia Museoko kidea). “Umeak ginean, urrian, Domu Santu Eguna hurbiltzen zenean baratetara jotzen genuen eta kalabazak hartzen genituen. Goitik moztzen genituen eta hustu ostean begiak eta ahoa egiten genizkien kandela barruan sartzeko. Frontoia- ren aurrean zegoen horma baten gainean hiru jartzen genituen eta oso beldurgarria zen”. Artziniegarrak ez du gogoratzen zergatik egiten zuten. “Ziurrenik ume nagusiak ikusi genituen hori egiten eta kopiatu egin genuen”. Hala ere, Zurbikutu uste du ohitura hori garaia eta Domu Santu Egunari lotua zegoela: “Urte horietan herrian 4 argi zeuden eta iluntasunari eta hilerriari beldurra genien, bat-batean kalabaza horiek ikusteak eragin handia zeukan”. Zentzu horretan, ezberdintasun handia sumatzen du Halloween eta Domu Santu edo Arimen Egunaren artean: “Egun horiek ez ziren jaiak. Umeak ez ginen ateratzen kalera gaez, gehienez gizonak joaten ziren tabernara. Kalabazak eta izarak ere erabiltzen ziren jendea izutzeko, baina oso txantxa astunak ziren. Behin, broma baten ondorioz pertsona bat eroetxean sartu behar izan zuten”.

ANUNTXI ARANA (Antropologoa, Luiaondo) Aranak Artziniegakoen antzeko pasadizoak berreskuratu ditu bere herrian zein Orozkon. Lortutako testigantzek ziurtatzen dute kalabazen bitartez jendea izutze-

ko saiakerak egiten zirela. Hori bai, Aranak ikertutako gertakariak ez zeuden Domu Santu egunari lotuta. Deskribatutako pasadizoetan beldurrak sorginetan zeukan sorburua. Aranak Orozkon jasotako kondaira baten arabera, mutil batek kalabaza bati ahoa eta begiak egin ondoren kandela sartu zion. Mutilak bere burua izara zuri batez estali zuen, eta emakume bat ikaratzen saiatu zen. Baina, koldartu beharrean, neskak aizkora hartu eta mutilak hanka egin behar izan zuen. Kondaira horren arabera, Garizuman erabiltzen ziren kalabazak herri-tarrak beldurtzeko. Edonola ere, arestian esan bezala, ikarak sorginekin zeukan harremana, ez hildakoekin.

FELIX MUGURUTZA MONTALBAN (Filologoa eta euskaltzain urgazlea, Luiaondo) “Orozkon antzinan ardiei argiurdi batzuk jartzen zitzaizkien, ispirituak uxatzeko”, azaldu du Mugurutzak, “ohitura hori Ipar Amerikara iritsi zen gero, eta bertan kalabazak erabiltzen hasi ziren, haragiaren kontsumoa -goseteen ondorioz- ez baitzegoen horren hedatua. Ondoren, bueltan etorri zaigu berriz”. Ikerlari luiaondoarraren aburuz, azaroan ospatzen diren hainbat ospakizunek (Domu Santua edo Gaztain Eguna, kasu) erro edo funtzio berdina dute: ziklo baten amaiera markatzea; udarena, hain zuzen. Era berean, gaztainaren uzta jaso ostean, hildakoentzako meza egiten zuten Orozkon eta gaztainondoaren fruituak eskaintzen zizkiotela zendutakoei.



EUSKAL HERRIAN JASOTAKO TESTIGANTZAK

MARIA ANGELES IZETA (1936).

Neskakoskorretan kalabaza hustu, begiak, sudurra eta ahoa zulatu eta Arozenatik Mixerikordiara bidean, Hiruarboletan, kalabazak ipintzen genituen. Pildomenarekin jartzen genien argia, kalabaza hustutzeko erabilitako zulotik sartzen genuen argizarizko pildomena.

XABIER IRIONDOK (1932).

Kanpo Santuko lehengo bide zaharreko posteen goian jartzen genituen kalabazak. Hilerrira askotan joaten ginen jolasera, bihurrienek, fosa komunetik burezurak eta hartzen zituzten. Ez dakit Arimen Gauean edo beste egunen baten baina bihurrikeria egiteagatik, lagun bat burezura hartuta herritik jendea beldurtzen ibili zen.

JUAN MARI ARTANO (1949).

Mutil koskorretan, kalabaza hustu, aurpegiko zuloak egin eta kandela sartu geniola gogoratzen naiz. Ni baino zaharragoen atzetik joan nintzen, Hiruarboletan jarri genuen. Orduan, ibilgailu gutxi pasatzen ziren errepide nagusitik, egun hartan pasa zen kamio gidari bakarrenetako bat bidean gelditu eta ostikoz jo zuela kalabaza akordatzten naiz.

PELLO ALBERDI (1949). Oso gaztea nintzen, baina Iruitta baserrian bizi nintzen garaian Etorrabidean eta baserri-bide batzuetan edo ataritan kandelak zituzten kalabazak izaten zirenen errezeloa daukat.

MARIA LUISA ETXABE (1943).

Zestoan bizi naiz aspalditik baina Zarauzko Hiruerreketa auzoan jaioa naiz. Umea nintzela etxeko baratzean, Arimen Gauean kalabazak zulaturik agertzen zitzaizkigun. Ez zizkiguten lapurtzen, baina, lurretik atera gabe, begiak, sudurra eta ahoa marraztuta topatzen genituen.

TORIBIO ETXEBARRIA

(EIBAR, 1887). “Animen egunian, oitura zarra zan Eibar-en, jan da eran tabernan eittia moskortu arte. Baita kaleko neska mutillak, alkarregaz, baserrixetan gastaña erriak jatia.”

JUAN JOSE ARAOLAZA

(ZIZURKIL, 1943). Mutil koskorra zela Zizurkilen ezagutu zuen Arimen Egunaren inguruko festa. Kalabazak hustu, begi eta ahorako zuloak egin eta kandelak jartzen zizkioten barruan. Ilunpetan irudi ikaragarria eragiten omen zuen.

MUTRIKUKO ADINEKOEK.

“Santu Guztien inguruko gauren batetan (...) herriko gaztetxoak alde batetik bestera ibiltzen omen ziren jendea beldurtzen. Egun batzuk lehenago inguruko baratzetan kalabazak lapurtzen zituzten, gero hustu eta barruan kandelak sartzeko. Kalabazak atarietan-eta jartzen zituzten. Kanta bat ere bazen horren inguruan: «Xesteron kontra, animen alde...» (Xestero Mutrikuko ehortzailearen izena zen). XX. mende hasierako urtetan egiten zela behintzat badakigu.”

HERMINIA LAZPITA

(BERRIZ). “Gabea edo iluntzean ipinten zan kalabazea, begiak eta ahoa egin, barruan kandelea sartu isiotuta, kanpatorrean. Kalabazea hustu egiten zan, zuloa egin azpitik, haziak-eta kendu, eta gero ipinten jakon kandelea barruan eta begiak eta ahoa aterata ipinten jakozan, zein da buru baten formea. Eta sartzen jakon kandelea erdian, eta hareek begietatik eta surretik-eta, argia ikusi egiten zan. Ganera orduan ez egoan argirik kaleetan, dana ilunetan. Eta ha ba, izentazinoa kalaberearena izango zan, nik pentsau, gazteak gintzazan eta, baina hortxe ipinten zan kalaberearen...”

ARABAKO ERRIOXAN jasotako

lekukotza. “Nire amak txikitan kalabazak hartu, hustu eta kandela bat sartuta bihurrikeriak egiten zituzten herrian. Nire herria arabako Errioxan dago, eta tradizioa belaunaldi horretan galdu zen (duela 55 bat urte).”

JOAKINA (OIARTZUN).

Joakina gogoratzen da kalabazu hustu, zuloak egin eta kandela barruan jartzen iotela, jendea beldurtzeko. Oiartzuarren baitan.

ESKE-KANTUA

Neguko festen ezaugarri nagusietakoa etxez-etxeko eta atez-ateko kuestazio erronda da. Gazte taldeek baserriz-baserri eta etxez-etxeko jira egiten dute, moxorrotuta (inauterietan) edo kantuan (Santa Eskean, Olentzerotan,...) eta jakiak, dirua edo goxokiak biltzen dituzte.

Kantu-eskean aritzeko hamaika formula desberdin erabiltzen dira, adibidez: “Aginaldo, aginaldo, urdaia bota ta ixilduko!” edo “emongo bozu emoizu, bestela ezetz esaizu, ate osteko haiziak hartzen amak ez gaitu bialdu!”. Mutrikun, Gaba Beltzean, kalabazak atarietan jarri, eta esakera polita kantatzen zuten: “Xesteron kontra, animen alde...”. Xestero Mutrikuko ehortzailearen izena omen zen.

Orain, Halloweenen erauntsiaren ondorioz “truco-o-trato” erabiltzen da sarri (“trick-or-treat” ingelesaren itzulpen bezala)... Euskaraz egon badaude eske-kanturako esakera asko, nork berak berea hautatu dezala, helburua eta ondorioa berdina baita.

***Xanduli, manduli,
kikirriki...
eman goxokiak
guri!***

Sosa ala pota

***Txingila mingila
kurruskario,
sagararak merke
eta udareak kario.***

Ziria ala saria.



MOZORROTZEAZ

Animen gauaren euskal ospakizunean ez zegoen plastikozko mozerro, maskara eta kalabazarik erosi beharrik. Inauterietan bezala, mozerroaren helburu nagusia, gure burua ezkutatzeko zen, inork ez ezagutzea, eta horretarako nahikoa ziren oihal eta trapu zahar batzuk erabiltzea aurpegia estaltzeko.

Jakina, Halloween berria merkataritza-industriak bultzatu du, eta helburua mozerroak eta maskarak saltzea da, beraz, horretan ziri ederra sartu digute, eta gainera, festa egiteko modu merke eta jasangarriagoa baztertu dugu.

Arimen gaua ospatzeko bilatu etxeko trapu-zaharrak, sakuak, lastozko txanoak eta aurpegia ondo estalita dugula zabaldu beldurra gure herri eta kaleetan.

***Birziklatzea,
kontsumismoari
aurre egin eta
gure usadioak
berreskuratu!***



KALABAZAK

Baratzeetara hubildu eta apaintzeko kalabaza eta arbiak eskatu nekazariei

Antzina, hurrek eta helduek inguruko baratzeetan lapurtzen zituzten kalabaza eta arbiak (nekazari askok bertan uzten zituzten ale batzuk, nahitara, hurrek eraman zitzaizten).

Kalabaza horiek hustu, buru-hezur forma eman, eta kandela bat jarrita bide bazterretan utzi, gurekin aldean eraman edo zuhaitz zein toki garaietan utzi ditzakegu, haurrentzat abentura dibertigarria izango da, eta beldurra hedatuko dugu han-hemenka.



ikastetxeentzako PROPOSAMENA

Gure helburua, modu dinamiko batean, Arimen Gaua lantzen hastea da. Duela 60 urte ospatzen zen gaua berreskuratu eta gaur eguneko errealitatera ekartzeko.

Euskaratik eta euskaraz eta kanpotik datozen eredu kontsumistak alde batera uzteko eta bertako ohiturak berreskuratzeko proposamena da hain zuzen ere.

Eskolak eragile aktiboak dira tradizioen zabalpenean eta horregatik proposamena eskolei luzatzen diegu, egoki ikusiz gero, ikasleekin landu dezaten.

Tutoretzan edo euskarari landu daitekeen gaia da, baina eskola bakoitzak ikusiko du landu nahi ote duen, eta nola.

Adinak psikologia ebolutiboan eragina duenez hiru etapa bereiztu ditugu eta hiru proposamen zehatz egin, nahi bezala osatu eta moldatzeko.

Alde batetik Haur Hezkuntzarako proposamena dago, bestetik Lehe Hezkuntzarako eta azkenik Bigarren Hezkuntzarako.

Haur eta gaztetxo guztiei etxerako lan bat eskatuko zaie. Bere inguruan dauden pertsona nagusiekin hitz egitea eta negu garaiko ospakizunen inguruan galdetzea. Batez ere urriak 31 eta azaroak 1aren inguruan ospatzen zituzten jai eta usadioen inguruan galdetzea.

Testigantza hauek, idatziz, margotuta edo grabatuta ekar ditzakete eskolara.



Haur Hezkuntza

Lehendabizi Arimen Gaua ospatuko dugula adieraziko diegu haurrei. Horretarako gure ingurua apainduko dugu -izan eskola edo ikasgela bera-, gau honen Euskal Herriko ospakizunetako argazkiekin.

Bestetik goxokiak edo fruitu lehorrak eskatzeko esaldia eta dantza ikasiko ditugu, eta gaztain tailerra ere egiteko aukera izango dugu.

Kanta eta dantza

- 1** “**Xanduli**” esaten dugun bitartean, bi eskuekin gure izterren aurka joko dugu, silaba bakoitzeko behin.
- 2** “**Manduli**” esaten dugun bitartean txaloak emango ditugu, silaba bakoitzeko behin.
- 3** “**Kikirriki**” esaten dugun bitartean atzamarrekin kriskitinak egingo ditugu, silaba bakoitzeko behin.
- 4** “**Eman gaztainak**” eta “**eman goxokiak**” esaten dugun bitartean jira-buelta bat emango dugu.
- 5** “**Guri**” esatean, ohiuka salto bat emango dugu ukabila gorantz altxatuta.

***Xanduli, manduli
kikirriki...
Eman gaztainak guri!***

***Xanduli, manduli,
kikirriki...
Eman goxokiak guri! (Bis)***

Gaztain-tailerra



Gaztainak tenperarekin margotuko ditugu, lepokoak eta bestelako apaingarriak egiteko.

Horretarako, gaztainak biltzeko basora irteeratxo bat ere egin dezakegu ikasleekin. Garaiko uztak ezagutzeaz gainera, eskualdean gaztainedu izan duten garrantziaz hitz egin dezakegu eta nola, gure arbasoek arimen gauaren bueltan, dagoeneko gure artean ez daudenei eskaintzen zizkieten gaztainak.

Lehen Hezkuntza



Lehendabizi urriak 31an zerbait berezia egiten duten galdetuko diegu haurrei; ea egunez edo gauez ospatzen duten, eta zelan ospatzen duten galdetuko diegu. Horrek, modu horretan zergatik ospatzen duten galdetzeko aukera ere emango digu.

Behin gaia kokatuta, Arimen Gaura Euskal Herriko usadio bat zela azaldu ahal izango dugu eta bertan zelan ospatzen zen adierazi.

Kalabazak ekartzea eskatuko diegu (garrantzitsua da kalabazak ez erostea, lortu egin behar dituztela esan, beharrezkoa bada gurasoei ere esan ez dutela kalabaza erosi behar, inguruan bilatu eta eskuratzea da helburua).

Behin kalabazak ditugula; hustu, zulatu eta kandelak jarriko dizkiegu. Antzina, gure eskualdean horrela egiten zela gogora ekarriz.

Proposamena jolas bat egitea da. Eskolako bost toki ezberdin aukeratuko ditugu eta toki bakoitzean froga bat bete beharko dute haurrek, eta tokian egon direnaren seinalea eskuratu beharko dute.

Froga egin ahal izateko taldeak kantu-eske esaldi bat esan beharko du leku bakoitzean.

Leku bakoitzean pertsona bat egongo da froga egiteko eskatu eta ordainean, seinalea emateko.

Tokiak ondo desberdintzeko,

lekuan dagoen pertsona trapu zaharrekin jantzita egongo da eta aurretik apaindu dugun kalabazetako bat edukiko du ondoan.

Hasieran eskutitz bat emango zaie, eskolako plano batean bost tokiak seinalatuz. Bertan galdera bat luzatuko zaie:

“Arimen gaura ospatzeko zer behar dut?”

Bost esaldiak idatzita edukiko dituzte, pasahitz moduan erabili beharko dituztenak eta tokian toki zein den asmatu beharko dute.

Ikusi hurrengo orriko argibideak >

1 *Lehenengo lekua*

FROGA: Buruan zapiak jarri eta begientzako zuloak egin. Helburua zapiak ahalik eta modu originalenean jartzea da.

ESALDIA: Xanduli, manduli, kikirriki...eman gaztainak guri.

SEINALEA: Gaztain eskukada bat.

MATERIALEA: Gaztainak eta zapiak.

2 *Bigarren lekua*

FROGA: Sorgin-dantza. Abesti bat jarriko zaie eta taldean koreografia txiki bat asmatu beharko dute (abestia: Bizkargi dantza taldearen eta Xabi Solanoren “erre zenituzten”).

ESALDIA: Sosa ala pota.

SEINALEA: Intxaur eskukada bat.

MATERIALEA: Intxaurreak eta musika-gailua.

3 *Hirugarren lekua*

FROGA: Telefono-eroa. Esaldi bat esango zaio taldeko kide bati belarrira, eta belarritik belarrira, banaka, kide guztiei esan beharko diote. Azkeneko taldekideak berari heldu zaiona esan beharko du. Esaldia amaierara ondo heltzea da helburua, beraz behar duten tartea eskaini ulermenean (esaldia eskean ibiltzeko beste esaldi bat da, euskalkiak lantzeko balio du: Emongo bozu emoizu, bestela ezetz esaizu, ate osteko haiziak hartzen inork ez gaitu bialdu”).

ESALDIA: Xesteron kontra, animen alde!

SEINALEA: Hur eskukada bat

MATERIALEA: Hurrak

4 *Laugarren lekua*

FROGA: Abesti bat kantatu (proposatzen den abestia Exkixu taldearen “sorginen leizea” da)

ESALDIA: Aginaldo, aginaldo, urdaia bota ta ixilduko!

SEINALEA: Goxoki eskukada bat

MATERIALEA: Goxokiak eta abestiaren letra idatziz

5 *Bosgarren lekua*

FROGA: Denak elkarrekin beldurrezko ipuin bat kontatu. Borobilean edo ilaran jarri eta bakoitzak istorioaren esaldi bat kontatuko du. Horrela denen artean istorioari esaldiak gehituz istorio oso bat asmatuko dugu.

ESALDIA: Txingila mingila kurruskario, sagarrak merke eta udareak kario.

SEINALEA: Sagarrak.

MATERIALEA: Sagarrak.

Bigarren Hezkuntza

Arimen gauaren inguruan galdetuko diegu. Ea egunez edo gauez osapatzen duten edo noizbait ospatu duten eta zelan ospatu duten. Era berean, egun horietarako euskal ohiturarik ezagutzen ote duten galdetuko zaie.

Aldez aurretik euren aiton-amonei edo inguruko edadetuei galdetu egin diete ea ga-

rai horretako ohiturarik gogoratzen duten. Interesgarria da egun horretan istorio hauek kontatzea, edo grabatu badituzte elkarrekin ikustea.

Gero sortzaile bilakatuko ditugu eta “arimen gaueko mikro ipuin beldurgarrien txapelketa” egitea proposatuko diegu.

Mikro-ipuinaren ezaugarriak

Ipuin guztien egitura berdina izango da: hasierako egoera bat -gertaera bat, arazo bat, korapiloa -gertaeraren aurren zer egiten den- bukaerako egoera berri bat. Ipuinak ezingo ditu 500 hitz baino gehiago izan.

Mikro-ipuina sortzeko urratsak

- 1 Gaia eta mota guk emango diegu. Gaia “Arimen gaua” izango da eta mota “beldurrezko istorioa”
- 2 Idazten hasteko galdera hauei erantzuna topatu beharko diote:
 - Non gertatzen da? (Lekua)
 - Nori gertatzen zaio? (Pertsonaiak)
 - Noiz gertatzen da? (Garaia, eguna, gaua)
 - Zer gertatzen da ? (Arazoa edo korapiloa)
- 3 Gertaera edo korapilo horretatik ateratzeko zer egiten dute pertsonaiek?
- 4 Idazten hasteko
 - Hasiera bat eman (Bazen behin..., lurralde beldurgarri batean..., sekula ez zait ahaztuko..., garai hartan...).
 - Hasierako egoera eta pertsonaiak deskribatu.
 - Egoera edo gertakaria azaldu.
 - Gertaera horretatik ateratzeko emandako urratsak azaldu.
 - Gertaeraren osteko bukaerako egoera deskribatu baita pertsonaiak aldatu egin badira pertsonaien deskribapena ere.
- 5 Ipuinean esamoldeak, abestiak, aho korapiloak, asmakizunak, esaera zaharrak... sartu daitezke.
- 6 Amaitzeko bukaera bat eman ipuinari (Hala bazan edo ez bazan..., handik aurrera etxe horretan denak zoratzen hasi ziren..., egia bada sakelari sar...)




Dosier hau osatzeko ondorengo iturriak erabili dira:

- **ELKARRIZKETA ARGIA ASTEKARIAN 20171105:** Jaime Altuna eta Josu Ozaita.
<https://www.argia.eus/argia-astekaria/2573/hurrek-halloween-ospatzeari-esker-jakin-dugu-gu-rean-ere-kalabazekin-jolasten-zutela-duela-ehun-urte>
- **DANTZAN.EUS:**
<https://dantzaneus.com/bideoak/arimen-gaua>
<https://dantzaneus.com/hemeroteka/gaur-halloween-guretzat-arimen-gaua>
<https://dantzaneus.com/kidea/oier/hamar-urte-halloween>
- **ARIMEN GAUA ESKOLAN**
Arimen gauaren gaia Euskal Curriculumaren barnean kokatzeko proposamena
ARITZ BRONTE; MIKEL ANTIA ETA VIRGINIA BLANCO
HUHEZI Mondragon Unibertsitatea
- **FELIX MUGURUTZA**
<http://blogs.deia.eus/arca-de-no-se/tag/arimen-gaua/>
- **AIARALDEA.EUS**
Hainbat artikulu eta testigantza

Aiaraldea Ekintzen Faktoriako hezkuntza ildoarekin harremanetan jarri nahi baduzue, zeun ikastetxean edo herrian Arimen Gauaren inguruko dinamizazioak kontratatzeko:

ARITZ LILI LEKANDA
693 85 53 12
hezkuntza@aiaraldea.eus

ARIMEN GAUA

A black and white photograph of a person wearing a straw hat and a plaid shirt, holding a flaming torch. The person's face is partially obscured by a white mask or cloth. The background is dark and textured.

*Xanduli, manduli,
kikirriki...
eman goxokiak guri!*

AIARALDEA EKINTZEN

FAK
TO-
RIA

www.faktoria.eus